



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALEKO HIRI HONDAKINEN ATEZ-ATEKO GAIKAKO BILKETAREN ONDORIOZ JASOTAKO PAPER ETA KARTOIAREN SALMENTA-KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA.

1.- XEDEA

Baldintza tekniko hauen xedea Usurbilgo Udaleko hiri hondakinen atez-ate gaikako bilketaren ondorioz jasotzen duen paper-kartoiaren salmenta kontratatzeke oinarri bezala erabiliko den baldintza teknikoa zerrendatzea da.

2.- MATERIALAREN KANTITATEAK ETA KALITATE DESBERDINAK

Gaur gaurkoz, Usurbilgo Udalak hiri hondakinen atez ateko gaikako bilketa egiten du hiri gunean eta gune industrialetan. Bestalde, ekarpen puntuen bidez, landa guneko hiri hondakinak biltzen dira.

Gaur egun biltzen den paper-kartoa 1.04 kalitatekoa da.

Eskaintzaileek beren eskaintzak doitzeko xedez, eskaintza aurkeztu baino lehen zerbitzu bakoitzean bildutako materialaren kalitatea zehazteko zerbitzuko bidai kopuru zehatza eska dezake. Zerbitzu Teknikoekin adostu ondoren definituko dira. Halakoetan beren kargura izango dira, batetik, garraioaren ondoko gastuak eta, bestetik, Udalarari eskatutako material guztia ordaindu beharko diote eginiko eskaintzaren arabera, eta edozein kasutan gutxien-gutxieneko prezio honetan: Paper-kartoi 1.04 mota. 85 €/tn gutxieneko prezioa.

Eskaintzaileek magnitudea ezagutu eta beren kalkuluak egiteko, I. eranskinean azkeneko urteetan Udalean bildutako materialaren kopurua dago.

Kontratistak entregatzen zaion material guztia onartu eta tratatu behako du, hezetasunagatik edo egokiak ez diren materialengatik deskonturik aplikatu gabe. Era berean, kontratistak bere gain hartu beharko du material desagokiak kudeatzeari dagokion kostu guztia.

3.- ESLEIPENDUNAK BETE BEHARKO DITUEN JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA BALDINTZAK

Usurbilgo Udala arduratuko da udalerriko paper-kartoa biltzeaz. Ondoren, ibilgailu honek esleipendunaren jabetzako instalazioetara garraiatuko du paper eta kartoa. Bertan, esleipendunak materiala onartu eta ondoren, sailkatze eta moldatze prozesuen bidez esleipendunaren birziklatze-plantara bideratuko da paper eta kartoa (paper-fabrika). Bildutako materiala instalazioetan entregatzen denean esleipendunaren kontura izango dira manipulatu eta azken jomugan entregatzearen ondoriozko kostuak.



Usurbilgo Udala

Biltegitratze- eta deskargatze-instalazioak Usurbilgo Udalerritik gehienez 20 Km-tara kokatuko dira. Kontratua lortu nahi duen eskaintzailearen batek gaur egun distantzia horren barruan instalazioak ez baditu, kontratuaren esleipenduna izanez gero, sei hilabetetik beherako epean izango dituela adierazten duen berariazko konpromisoa aurkeztu beharko du. Bertan zehaztu beharko dira hauek:

- Instalazio berria izateko aurreikusten den gehienezko epea.
- Instalazioa izan bitartean, zein beste instalazio, 20 km-tako distantzia beteko duena erabiliko den.
- Aurrez ikusitako kokapena eta instalazioen gainerako ezaugarriak adieraziko dira, lehiaketaren fasean behar bezala balioztatu ahal izateko.

Zehaztutako epeetan hartutako konpromisoa betetzen ez badu, kontratua ebazteko arrazoia izango da.

Entregatutako paper-kartoiaren kopuruak kontrolatzeko, instalazioek gutxienez baskula edo pisatze-sistema bat izango dute. Gainera, erakunde aginpidedunak eman ondoren, egiaztapenaren kontrol metrologikoaren ziurtagiriz hornituak egongo dira. Era berean, esleipendunak halako instalazio-motarako xedatutako aldizkakatutasunez kontrol eta eguneratzeak aurkeztu beharko ditu.

Esleipendunak pisatze-ticketa edo -frogagiria entregatuko die ibilgailuen gidariei egindako deskarga bakoitzean. Halaber, hileroko Usurbilgo Udalari hartutako kiloen zerrenda edo horiek justifikatzeko behar dezakeen beste edozein egiaztagiriri entregatuko dio, Udalak eskaturiko formatuan.

Materialak 24 orduz eta 365 egunez deskargatu ahal izatea ezinbesteko baldintza da.

Orain artekoaz gain, nahitaezko baldintza da esleipendunak Ecoembalajes España, S.A.k (ECOEMBESEK) berreskuratzaile edo birziklatzaile bezala onartua izateko eskatzen dituen betekizun guztiak betetzea. Esleipendunari berari egotz dakiokkeen edozein arazoirengatik onartzen ez badu, kontratua ebatzi ahal izango da.

4.- ENTREGATUTAKO MATERIALAREN AZKENEKO JOMUGA

Kontratatik jasotako materiala birziklatzera, hau da, paper-orea lortu eta, ondoren, jatorrizko produktua edo pareko bestelako zelulosazko produktua fabrikatzeko berreskuratutako paper-kartoa lehengai bezala aprobetxatzera bideratuko du.

Kontratatik ezinbestez materiala hartzaileei entregatu beharko die, Hartzaileak izango dira paper-kartoiaren eta gainerako zelulosazko produktuen azkeneko ekoizle edo fabrikatzaileak, Europar Batasunaren barruan kokatuak daudenak.

Xede horrez, kontratatik gutxienez urtean behin jasotako materialaren kudeaketari buruzko txostena entregatu beharko du eta gutxienez honakoak zehaztuko dira:

- Birziklatu, balioa eman eta zabartegira (errefusa moduan) bideratutako kopuruak eta



Usurbilgo Udala

ehunekoak, materialaren kalitatearen arabera banatuak. Emaitzak eta denboran eboluzioa interpretatuko dira.

- Jomugen arabera materialaren kopuruak eta ehunekoak. Enpresen izenak eta helbideak, baita aplikatutako tratamendua ere zehaztuko dira.
- Entregatutako hondakinen kudeaketari buruzko beste edozein informazio, Udalak eskatuz gero.
- Txostenarekin batera baskula edo pisatze sistemaren urteko egiaztapen kontrol metrologiakoaren ziurtagiria ere aurkeztuko da.

Aurreko guztia dagozkion agiriekin ziurtatu beharko da.

Informazio hori eta orri honetan eskatutako beste edozein informazio formatu digitalean entregatuko da, automatikoki Udalaren egungo eta etorkizuneko informazio publikoaren sisteman integratu ahal izateko.

5.- INFORMAZIO TEKNIKOA

Eskaintzaileek beren eskaintzaren xehetasun teknikoak aurkeztuko dituzte eskaintza orokorrarekin batera, baita entregatutako materiala deskargatu edota manipulatu den biltegiatze-instalazioen ezaugarriak ere: planoak, zentrorako sarbideak, baskula, Usurbilgo udalaren gaikako bilketarekin zerikusirik ez duen materialaren sarrerak eta, oro har, eskaintzaileek egokitzen duten beste edozein informazio. Instalazioek jarduteko baimen guztiak izango dituzte.

6.- OBJEKTU BALIOTSUAK AGERTZEA

Kontratistak entregatutako materialean ager daitezkeen objektu baliotsuak jakinaraziko dizkio Udalari eta bere esku jarriko ditu.

I. ERANSKINA: JASOTAKO KILOAK

ZERBITZUA	2013an jasotako Tonak	2014an jasotako Tonak	2015ean jasotako Tonak	2016an jasotako Tonak
Atez-ate jasotako papera (1.04)	333,82	328,52	395,21	380